## Ekonomia Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 163/2014 FORU DEKRETUA, 2014ko abenduaren 9koa. Honen bidez, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira.**

Gure ekonomiari eusteko ezinbestekoa da enpresa-ehun sendo eta dinamikoa sortzea. Kultura ekintzailea indartu behar dugu eta enpresa-sustatzaileei negozio-ideiak garatzen lagundu behar zaie. Horiek guztiak funtsezko jarduerak dira enplegu-politikak garatzean. Dekretu honen bidez, enpresa txikiak sortzea sustatu nahi da; horretarako, politika aktiboak aplikatuko dira, negozio-ideiaren fasetik, enpresa abiarazi arte.

Dekretuaren helburua da gaur egun langabezian dauden pertsonen kolektiboan eragina izatea; kolektibo hori laneratzea, zenbaitetan, egingarri eta jasangarriagoa da, baldin eta enpresari autonomoen edo enpresa txiki kolektiboaren bidez egiten bada, eta ez besteren kontura laneratzearen bidez egiten bada. Gainera, gazteen artean dagoen langabezia-tasa altua kontuan izanik, kolektibo horri beren beregi zuzendutako neurri bat ere sartu da.

Bestetik, Europako Batzordearen ekintzailetzarako 2020 Ekintza-Planari buruzko Komunikazioaren arabera (komunikazio zk.: 2012 795 azkena), enpresa berriak dira lanpostu berrien sortzailerik garrantzitsuena, eta hipotesi hori da dekretu honen oinarrizko proposamenetako bat.

Hori dela eta, dekretu honen bidez ekintzaileari laguntza eskaini nahi zaio haren enpresa-jardueraren hasieretan, jardueraren eraketan eta abiaraztean, baita kontratazioan eta inbertsioan, eta eragin berezia jarri nahi da egoera ahulean dauden kolektiboengan.

Dekretu hau lau titulutan egituratuta dago. Lehenengoan, autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko beharrezko faseak jasotzen dira; bigarrenean, enplegua sortzeko laguntzen neurri berezia xedatu da; eta hirugarrenean, Bizkaiko Lurralde Historikoan gazteen enplegua sortzeko pizgarri osagarri legez jarritako funts galdurako diru-laguntzak biltzen dira.

I. tituluan arautzen diren laguntzak enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko laguntzak arautzen dira, aholkularitzaren eta prestakuntzaren bidez, pertsona sustatzaileei, enpresa osatzeko beharrezko arloetan, besteak beste: enpresaren forma, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa, tributazioa eta laguntza publikoak edo bestelakoak.

Enpresa-kudeaketako aholkularitzan egiaztatutako esperientzia duten erakundeei laguntzea da atal honen xedea, pertsona sustatzaileak hautatzeko proiektua aurkezten duten erakundeei -haiek enpresa sortzeko aholkularitza emateko- hain zuzen ere. Horrela, norgehiagoka araubidearen bidez, eremu horretan finkatuta dagoen lan-ildoa egiaztatzen dutenak hautatu nahi dira. Laguntzaren banaketan ahalik eta elkartasun-mailarik handiena lortzeko, eta laguntzak lortu ahal izateko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen baturak deialdiaren xedeko zenbatekoa baino handiagoa bada, zenbateko horren hainbanaketa egingo da onuradunen artean, proiektuen aurrekontu doituen proportzioan, betiere diru-laguntzaren baldintzak, xedea eta helburua aldatzen ez badira.

II atalak, «Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak» izenburupean, nortasun juridikoko enpresek —norbanako enpresaburuak eta profesionalak barne—, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek Sailari, funtzionamenduaren lehen urtean ordaindu behar dituzten abiatzeko eta funtzionatzeko gastuei aurre egin ahal izateko, Ekonomia Sustatzeko Sailari zuzenean eska diezazkioketen laguntzak arautzen ditu. Laguntza-maila ezberdinak ezartzen ditu, erakunde horiek dekretu honen I. atalean lagundutako proiektuak edo laguntza hori erabili gabe sortutako proiektuak diren bereiziz.

Xede horretarako, lehiarik gabeko araubide askearen prozedura erabiliko da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Dekretuaren 20.

## Departamento de Promoción Económica

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 163/2014 de 9 de diciembre de 2014, por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión.**

La generación de un tejido empresarial fuerte y dinámico es imprescindible para el sostenimiento de nuestra economía. Potenciar la cultura emprendedora y ayudar a las y los promotores empresariales en el desarrollo de su idea de negocio, son actuaciones fundamentales en el desarrollo de las políticas de empleo. Mediante este Decreto, se pretende fomentar la generación de pequeñas empresas aplicando políticas activas, desde la fase de idea de negocio hasta la puesta en marcha.

El objetivo del decreto es incidir en un colectivo de personas en situación de desempleo, cuya inserción es, en algunos casos, más factible y sostenible si se hace mediante fórmulas de empresariado autónomo o de pequeña empresa colectiva, que si se pretende recurrir a la inserción por cuenta ajena. Además atendiendo a la alta tasa de desempleo entre los jóvenes se incluye una medida especialmente dirigida a este colectivo.

Por otra parte, según la Comunicación de la Comisión Europea relativa al Plan de Acción sobre emprendimiento 2020 (com 2012 795 final) las nuevas empresas, representan la fuente más importante de nuevos empleos, y dicha premisa constituye uno de los planteamientos básicos de este Decreto.

Es por ello que con este decreto se pretende apoyar a la persona emprendedora en las fases iniciales de su actividad empresarial, tanto en su constitución y puesta en marcha, como en contratación y en inversión, incidiendo especialmente en grupos desfavorecidos.

El Decreto se estructura en cuatro Títulos, el primero refleja las fases necesarias para fomentar el autoempleo y la creación de empresas, en el segundo se contempla una medida especial de ayudas por creación de empleo, y el tercero contiene subvenciones a fondo perdido como estímulo complementario para la creación de empleo juvenil en el Territorio Histórico de Bizkaia

En el Título I, las ayudas que se regulan en la Sección I pretenden apoyar la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales, a través del asesoramiento y la formación, a las personas promotoras en áreas necesarias para la constitución de la empresa, tales como, forma empresarial, trámites legales de constitución, permisos, licencias, financiación, tributación y ayudas públicas o de otro orden.

La finalidad de esta Sección es apoyar a aquellas entidades que, teniendo una experiencia contrastada en asesoramiento en gestión empresarial, presenten un proyecto para seleccionar personas promotoras a fin de asesorarles con el objetivo de crear empresa. Así, a través del procedimiento de concurrencia competitiva, se pretende seleccionar a las que acrediten una línea de trabajo afianzada en este ámbito. En orden a alcanzar una mayor solidaridad en la distribución de la ayuda, y en el caso de que la suma de los importes solicitados por quienes reúnan los requisitos para acceder a las ayudas sea superior al importe objeto de la convocatoria, dicho importe se prorrateará entre las personas beneficiarias en proporción a los presupuestos ajustados de los proyectos siempre que no se alteren las condiciones, objeto y finalidad de la subvención.

La Sección II bajo la denominación de «Ayudas a la puesta en marcha y creación de empresas», regula las ayudas que directamente las empresas con personalidad jurídica, incluyendo los empresarios y empresarias individuales y profesionales, las comunidades de bienes y sociedades civiles pueden solicitar al Departamento de Promoción Económica, para hacer frente a los gastos de puesta en marcha y funcionamiento que han de soportar durante el primer año de funcionamiento. Estableciendo distintos niveles de ayuda en función de que dichas entidades hayan surgido de los proyectos apoyados en la Sección I de este Decreto, o hayan surgido sin utilizar dicho apoyo.

A tal fin se utilizará el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo,

cve: BAO-BOB-2014a243

artikuluak aurrez ikusten denez; izan ere, enpresentzat oinarrizkoa da enpresentzat duten finantzaketaren berri izatea, batez ere, funtzionamenduan dauden lehenengo urtean. Hori dela eta, nahitaezkoa da haiek banan-banan aztertzea, aurkeztu ahala; horrela, eskabideak erkatzea saihestuko da eta, ondorioz, norgehiagoka araubidea. Horrela, bada, laguntza modu eraginkorrean eman nahi da.

II. tituluan, enplegua sortzeko neurri berezi bat jasotzen da: dirulaguntza bat, 2014 urtean 158/2013 Foru Dekretuaren babesean (208/2013 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdia) diru-laguntzaren bat jaso zuten erakundeek gutxienez urtebeteko lan-kontratua egiteagatik jasoko dutena. Gainera, aukera bera ezartzen da ere foru dekretu honen I. tituluko II. atalean jasotako diru-laguntzen onuradun suertatzen diren erakundeentzat, betiere dekretu honen I. atalean lagundutako proiektuetatik sortuak direnean.

Atal horretan ere, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutako norgehiagokarik gabeko prozedura erabiliko da, zeren dekretuaren bigarren ataletik sortutako enpresentzat urtebeteko —gutxienez— iraupeneko lan-kontratu bat egiteak funtzionamenduaren lehen uneetan kostu gehigarri bati aurre egin behar izatea baitakar, dekretu honen bidez murriztu nahi dena, dirulaguntza modu eraginkorragoan emanez. Horregatik, hain zuzen ere, prozedura publikoa, objektiboa eta norgehiagokarik gabekoa erabiliko da.

III. tituluak funts galdurako diru-laguntzak jasotzen ditu, beren ekonomi jarduera hasten duten 30 urteko eta urte gutxiagoko gazteek negozio bat abiarazteko egin behar dituzten inbertsioetarako.

Xede horretarako, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Dekretuaren 20. artikuluan aurrez ikusitako norgehiagokarik gabeko prozedura erabiliko da; izan ere, aurreko paragrafoetan adierazi denez, enpresentzat funtsezkoa da zenbateko finantzazioa duten jakitea, batez ere, funtzionatzen hasi diren lehenengo urtean. Hori dela eta, beharrezkoa da eskabideak aurkeztu ahala aztertzea, banan-banan. Beraz, eskabideak ez dira erkatuko, eta, horrenbestez, ez da norgehiagoka araubidea erabiliko, asmoa baita laguntzak modu eraginkorragoan eman ahal izatea.

Garapen iraunkorraren aldeko politikaren arloan, dekretu honen erakunde onuradunei gomendatzen zaie euren jarduerak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlana egin dezatela, eragina gutxitzearren. Era berean, azaroaren 8ko 31/1995 Legean ezarritakoaren arabera gomendatzen zaie laneko osasun eta segurtasunerako arriskuei buruzko azterlana eta prebentzio-jardueraren plangintza egitea.

Halaber, genero ikuspegiari dagokionez, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako foru planean Ekonomia Sustatzeko Sailak bere helburuak zehaztu zituen, eta haien arteko bat da, hain zuzen ere, sailaren laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan zeharkako bihurtzea generoaren ikuspegia, sailak funtseko tresnatzat jotzen baitu zeharkakotasun hori, gizarteari ezagutarazteko zein den berdintasunak duen garrantzia.

Dekretu honen I. tituluko 2. atalean eta II. eta III. tituluetan xedatutako diru-laguntzek aldi berean Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa ere jaso dezakete, EAEko 2014-2020 EFG Programa Operatiboaren esparruan, enplegu-aukerak, enpresa-espiritua eta moldagarritasuna, aukera-berdintasuna eta giza-baliabideetako inbertsioa bultzatuz eta giza baliabideetako inbertsioa sustatuz enplegua garatzen laguntzea baita funts horren xedea.

Dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori 2006ko abenduaren 28ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta EE Itunaren 87. eta 88. artikuluak de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, erregelamendu hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezazkioke enpresa arau-hausleari.

Dekretu honetan arautako laguntzak 2015ko ekitaldian haien ondoriozko betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo dira, halakorik egon ezean eten egingo baitira.

ya que resulta fundamental para las empresas conocer la financiación de la que disponen, máxime durante el primer año de funcionamiento, y por ello es preciso que las mismas se vayan analizando individualizadamente según se van presentado, aspecto que excluye la comparación de solicitudes y en consecuencia la concurrencia competitiva, pretendiendo posibilitar la asignación de ayuda de forma eficaz.

En el Título II, se recoge una medida especial de ayudas por creación de empleo, consistente en una subvención por la realización de un contrato de trabajo de al menos un año de duración por las entidades subvencionadas en el año 2014, al amparo del Decreto Foral 158/2013, convocatoria aprobada mediante Orden Foral 208/2013. Estableciéndose esta misma posibilidad para las entidades que resulten beneficiarias de la Sección II del Título I del presente Decreto Foral cuando surjan de los proyectos apoyados en la Sección I de este Decreto.

En este apartado también se utilizará el procedimiento de selección de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, ya que para las empresas surgidas de la Sección segunda del Decreto, el poder realizar un contrato de trabajo de, por lo menos, un año de duración supone soportar durante los primeros momentos de funcionamiento un coste añadido, que desde este Decreto se pretende mitigar asignando la ayuda de forma más eficaz, por ello se utilizará un procedimiento público, objetivo, de libre concurrencia.

El Título III contiene subvenciones a fondo perdido destinadas a las inversiones necesarias para la puesta en marcha de un negocio, realizadas por jóvenes con edad igual o inferior a treinta años que inicien su actividad económica.

A tal fin se utilizará el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, tal y como se ha hecho constar en párrafos anteriores, ya que resulta fundamental para las empresas conocer la financiación de la que disponen, máxime durante el primer año de funcionamiento, y por ello es preciso que las mismas se vayan analizando individualizadamente según se van presentado, aspecto que excluye la comparación de solicitudes y en consecuencia la concurrencia competitiva, pretendiendo posibilitar la asignación de ayuda de forma eficaz.

Por último, en el marco de una política de desarrollo sostenible, se recomienda a las entidades beneficiarias del presente Decreto la realización de un análisis de impacto medio ambiental de su actividad para proceder a su reducción. También se recomienda la realización del estudio de riesgos para la seguridad y la salud en el trabajo, y la planificación de la acción preventiva conforme a lo exigido en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre.

Asimismo, en referencia a la perspectiva de género, dentro del IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia, el Departamento de Promoción Económica fija sus propios objetivos entre los que figura transversalizar la variable de género en sus diferentes convocatorias de ayudas y subvenciones ya que se entiende como una herramienta fundamental para trasladar a la sociedad la importancia de la igualdad.

Las subvenciones contempladas en el Título I sección 2 y en los Título II y III del presente Decreto podrán estar cofinanciadas por el Fondo Social Europeo, en el marco del programa Operativo FSE 2014-2020 País Vasco, cuyo fin es contribuir al desarrollo del empleo impulsando la empleabilidad, el espíritu de empresa y la adaptabilidad, la igualdad de oportunidades y la inversión en recursos humanos.

Las ayudas o subvenciones contempladas en el presente Decreto están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento C.E. nº 1998/2006 de la Comisión de 15 de Diciembre de 2.006, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 28/12/2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado C.E. a las ayudas de MINIMIS y, en consecuencia, el incumplimiento de esa normativa podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la entidad infractora.

Las ayudas reguladas en el presente Decreto quedan sometidas a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas de las mismas en el ejercicio 2015.

cve: BAO-BOB-2014a243

Azaldutakoa dela bide, Ekonomia Sustatzeko Sailak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2014ko abenduaren 9ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra**

Langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta pertsona horiek enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzen emakida arautuko duten Ekonomia Sustatzeko Sailaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak onesten dira.

I. TITULUA

**ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT, BAZTERKERIA-ARRISKUAN DAUDENEI ARRETA BEREZIA ESKAINITA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Titulu honetan jasotako laguntzen xedea da langabezian dauden pertsona sustatzaileek sustatutako enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko laguntzak ematea, bi jarduera-motaren bidez:

1. 1. atala: Enpresa proiektuak sortu eta abian jartzeko aholkularitza.
2. 2. atala: Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak.

1. ATALA

**ENPRESA PROIEKTUAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO AHOLKULARITZA**

**2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak***

Diru-laguntza jasotzen duten ekintzen helburua negozio-plana egitea izango da.

Erakunde onuradunek zerbitzua eskainiko diete enpresa-proiektuen pertsona sustatzaileei. Zerbitzu hori era honetakoa izango da:

a) Lehenengo fasea, enpresari eta enpresa-kudeaketari buruzkoen hastapenerako. 30 orduko taldeko prestakuntza da; gutxienez, 5 pertsona sustatzaile eta, gehienez, 20. Fase honen helburua pertsona sustatzaileei beharrezko informazioa, metodologia eta laguntza profesionala ematea da, enpresa-ideiak egokiro orientatzeko.

Dena dela, onartzen da prestakuntza hori guztia aurrez aurre egin beharrik ez izatea, eta, beraz, parte bat taldean eta aurrez aurre egiteaz gainera, beste parte bat on line egitea. Hala eginez gero, 12 ordu, gutxienez, taldean eta aurrez aurreko saioetan egin beharko dira.

Prestakuntzak, besteak beste, honako eduki hauek izango ditu:

— Negozioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, bai eta lan-arriskuak eta ingurumenekoak ere.

— Finantzaketa: iturriak eta motak, eta kobrantzen eta ordainketen kudeaketan ohikoak diren gainerako tresnak.

— Tributazioa.

Eskabidean, erakundeek orduen banaketa sartu beharko dute, edukien arabera.

b) Banan-banako aholku emateko zerbitzua (40 ordu gehienez, sustatzaile bakoitzari), negozio-plan zehatza prestatzeko.

Negozio-planak, behintzat, honako hauek izan beharko ditu:

— Sarrera.

— Negozioaren azalpena eta kokapena.

— Inbertsio-proiektua eta finantzaketa-iturriak.

— Merkatu-azterketa.

— Antolamendua eta giza baliabideak.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Departamento de Promoción Económica y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 9 de diciembre de 2014.

DISPONGO:

**Artículo único**

Se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones por el Departamento de Promoción Económica para el fomento del autoempleo y la creación de empresas especialmente dirigido a personas desempleadas y en riesgo de exclusión.

TÍTULO I

**AYUDAS A LA CREACIÓN DE EMPRESAS DIRIGIDAS A PERSONAS DESEMPLEADAS, CON ESPECIAL ATENCIÓN A QUIENES ESTÉN EN RIESGO DE EXCLUSIÓN**

**Artículo 1.—*Objeto***

Las ayudas contenidas en el presente Título tienen por objeto apoyar la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales promovidos por personas promotoras desempleadas, a través de dos tipos de actuaciones:

1. Sección 1: Asesoramiento para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales.
2. Sección 2: Ayudas a la puesta en marcha y creación de empresas.

SECCIÓN 1

**ASESORAMIENTO PARA LA CREACIÓN Y PUESTA EN MARCHA DE PROYECTOS EMPRESARIALES**

**Artículo 2.—*Acciones subvencionables***

Las acciones objeto de subvención tendrán como objetivo la realización del plan de negocio.

Las entidades beneficiarias ofrecerán un servicio a las personas promotoras de los proyectos empresariales, consistente en:

a) Una primera fase de introducción a la empresa y a la gestión empresarial. Se trata de una formación grupal de 30 horas de duración, con un mínimo de 5 y máximo de 20 personas promotoras. Esta fase tiene por finalidad proporcionar a las personas promotoras la información, metodología y asistencia profesional necesarias para la orientación adecuada de las ideas empresariales.

No obstante, se admite que esta formación pueda ser semipresencial, entendiendo por tal una formación grupal presencial combinada con formación online. En este caso el número mínimo de horas de formación grupal presencial será de 12 horas.

La formación tendrá, entre otros, los siguientes contenidos:

— Negocio, forma jurídica, trámites legales de constitución, permisos, licencias, financiación y ayudas, así como riesgos laborales y medioambientales.

— La financiación: fuentes y tipos de financiación, e instrumentos habituales en la gestión de cobros y pagos.

— Tributación.

En la solicitud, las entidades deberán incluir el reparto de horas por contenido.

b) Servicio de asesoramiento individualizado con un máximo de 40 horas a cada persona promotora para la realización del plan de negocio concreto.

El Plan de negocio debe constar, al menos, de:

— Introducción.

— Descripción y localización del negocio.

— Proyecto de inversión y fuentes de financiación.

— Estudio de mercado.

— Organización y recursos humanos.

cve: BAO-BOB-2014a243

— Hartutako forma juridikoa.

— Ekonomia- eta finantza-azterketa.

— Aholkularitza eskaini zaion proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena.

— Arriskuaren balorazioa.

— Laburpena.

**3. artikulua.—*Erakunde onuradunak***

Honako erakunde hauek lortu ahal izango dituzte atal honetan ezarritako onurak:

— Bizkaiko Lurralde Historikoko udal izaerako enplegu eta tokiko garapenerako zentroak, edo erakunde autonomiadunak, enpresa publikoak edo haien mendeko edo haiekin lotutako bestelako erakundeak.

— Sozietatearen eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten irabazteko asmorik gabeko fundazioak, elkarteak eta bestelako erakundeak. Aldi berean, lantokia ere lurralde horretan eduki behar dute.

Erakunde onuradunek gutxienez ere hiru urteko esperientzia egiaztatu behar dute enpresa-kudeaketako aholkularitzaren arloan. Horretarako, erakundeek euren esperientziaren memoria aurkeztu behar dute; bertan, egin dituzten jardueren berri eman behar dute.

Onuradunak izateko, erakundeek ezin dute egon Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako inongo debekuren mendean.

Ez dira erakunde onuraduntzat hartuko prestakuntza-zentroak, ez eta haien mendeko diren elkarteak edo fundazioak ere.

**4. artikulua.—*Laguntzen zenbatekoa eta muga***

Diru-laguntzak funts galdurakoak izango dira, eta zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako ekintzen benetako kostua.

Diru-laguntza kalkulatzeko, 2013ko azaroaren 1etik 2014ko irailaren 30era bitartean egindako eta abian jarritako proiektu kopurua kontuan hartuko da, betiere, deialdian aurrez ikusitako moduan egiaztatuta badaude.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko,1500 euro biderkatu behar zaizkio 2013ko azaroaren 1etik 2014ko irailaren 30era bitartean egindako eta abian jarritako proiektuen kopuru osoari %10 gehitzearen emaitza den zifrari.

Enpresa-proiektu bakoitzeko, gehienez, 500 euroko diru-laguntza emango da, baldin eta negozio-plana egin badu, eta zenbateko horri beste 1.000 euro gehituko zaizkio, baldin eta enpresa eratu eta abian jartzen bada. Hala ere, 2013ko azaroaren 1etik 2014ko irailaren 30 bitartean egin eta abian jarritako proiektuei begiratuta, %10 baino ezin izango da handitu negozio-plana egiteagatik diruz laguntzea eskatu daitekeen proiektuen kopurua.

Beraz, emango den diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren eta aurreko paragrafoetan xedatua ezartzearen ondoriozko gehienezko kopuruaren arteko kopururik txikiena izango da.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko eta diru-laguntza jaso dezaketen aurkeztutako ekintzen multzo bakoitzeko, gehieneko diru-laguntza 100.000 euro izango da; zenbateko horretan, erakundeak 2. artikuluan ezarritako bi faseak —bai taldeko prestakuntza, bai banakako aholkularitza— egiteko bere gain hartutako diru-laguntza jaso dezaketen gastuak egotziko dira.

Edozelan ere, ezin izango da enpresa-proiektu bera eskabide baten baino gehiagotan aurkeztu, ez egin beharreko proiektu legez, ez justifikaturiko proiektu legez.

**5. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira benetako kostuei dagozkienak, benetan egindakoak eta ordaindutakoak eta fakturen edo kontabilitateko frogagiri baliokideen bitartez aurkeztutakoak, baldin eta behar bezala justifikatzen badira eta behar diren agiriak erantsita aurkezten badira.

— Forma jurídica adoptada.

— Estudio económico-financiero.

— Informe sobre la viabilidad del proyecto asesorado.

— Valoración del riesgo.

— Resumen.

**Artículo 3.—*Entidades beneficiarias***

Podrán acceder a los beneficios establecidos en esta sección:

— Centros de Empleo y Desarrollo local de carácter municipal del Territorio Histórico de Bizkaia, u organismos autónomos, empresas públicas u otras entidades de ellos dependientes o vinculadas.

— Fundaciones, asociaciones y otras entidades sin ánimo de lucro con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo el centro de trabajo, radicará también en dicho territorio.

Las entidades beneficiarias deberán acreditar una experiencia mínima contrastada de tres años en asesoramiento en gestión empresarial. Para ello las entidades deberán presentar una memoria explicativa de su experiencia en la que se detallen las actividades desarrolladas por las mismas.

Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la NFS.

No tendrán la consideración de entidad beneficiaria los centros formativos, ni asociaciones o fundaciones dependientes de los mismos.

**Artículo 4.—*Cuantía y límite de la subvención***

Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido, que no podrán superar en ningún caso el coste real de las acciones subvencionables presentadas.

Para el cálculo de la subvención se tendrán en cuenta el número de proyectos realizados y puestos en marcha, siempre que estén acreditados de la forma prevista en la convocatoria, desde el uno de noviembre de 2013 a 30 setiembre de 2014.

La cuantía máxima de la ayuda será la resultante de multiplicar 1500 euros a la cifra que surja de incrementar el 10% sobre el número total de los proyectos realizados y puestos en marcha desde el 1 de noviembre de 2013 a 30 setiembre 2014.

La subvención máxima a otorgar por cada proyecto empresarial, siempre que haya realizado el plan de negocio será de 500 euros, y se verá incrementada en otros 1.000 euros en el caso de constitución y puesta en marcha de la empresa. No obstante, el número máximo de proyectos por los que se solicita subvención por realización del plan de negocio podrá incrementarse únicamente en un 10% respecto a los proyectos realizados y puestos en marcha del 1 de noviembre de 2013 al 30 de setiembre del año 2014.

De tal suerte que la subvención a otorgar será la cantidad menor entre la cuantía solicitada y la cuantía máxima que resulte de la aplicación de los párrafos anteriores.

La subvención máxima alcanzable por entidad solicitante y por el total de las acciones subvencionables presentadas ascenderá a 100.000 euros, en dicho importe se imputarán los gastos subvencionables soportados por la entidad para la realización de las dos fases previstas en el artículo 2, tanto la formación grupal como el asesoramiento individualizado.

En todo caso, un mismo proyecto empresarial no podrá ser presentado ni como proyecto a realizar, ni como proyecto justificado en más de una solicitud.

**Artículo 5.—*Gastos subvencionables***

Se consideran gastos subvencionables, aquellos que respondan a los costes reales, efectivamente realizados, pagados y soportados mediante facturas o documentos contables de valor probatorio equivalente que estén debidamente justificados y acompañados del correspondiente soporte documental.

cve: BAO-BOB-2014a243

Bi motatako gastuetarako jaso daiteke diru-laguntza:

— Kanpoko prestakuntza-gastuak.

— Diruz lagundutako ekintzetan parte hartu duten erakunde onuradunaren langileen barneko gastuak. Soldatak eta karga sozialak baino ez dira sartuko.

Erakunde onuradunak egiten dituen barneko gastuak soldaten eta karga sozialen ordainketa egiaztatzen duten agirien bidez baino ezin dira justifikatu.

Debekatuta dago erakunde onuradunaren berezko egitekoak —3b artikuluan adierazitakoak— azpikontratatzea, baina baimenduta dago 2a artikuluan adierazitako egitekoak azpikontratatzea.

Diru-laguntza jasotzeko orduan, honako hau joko da diruz laguntzeko gastu garbitzat: proiektua egiteko gastu lagungarrien eta babes publikoaren bidez edo bestelako sarrera-iturrien bidez lortutako sarreren (norberarenak barne) arteko diferentzia.

Diruz lagundutako ekintzen azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, ekintza hasten denetik, eta ekintza amaitu eta gero ere egin daiteke. Erakunde onuradunak lankidetzan jardun beharko du Ekonomia Sustatzeko Sailarekin edota azken horrek izenda dezakeen edozein erakunderekin, eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu, eta baimena eman behar du datu horiek zuzenean trebakuntza zentroei eta ekintzan parte hartu dutenei eskatzeko.

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskabideak aurkezteko era eta epea.

**6. artikulua.—*Emateko prozedura eta balorazio-irizpideak***

Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkezten diren eskabideak erkatu egiten dira eta artikulu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da, eta, gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

Halere, kreditu baliagarriaren hainbanaketa ezarriko da diru-laguntzaren pertsona onuradunen artean.

Ofizioz hasiko da diru-laguntzak emateko prozedura, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 21.2. artikuluan ezarritako edukia jasoko duen deialdi egokiaren bidez, baina horrek ez dio aipatutako arau horren 31.1. artikuluan xedatutako gastuaren aldez aurretiko onespenari kalterik egingo.

Aurkeztutako eskabideak baloratu eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Eskabidearen zehaztasun-maila, kalitatea, edukia, aurkezpena eta eraginkortasuna. Gehienez, 5 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, erakunde eskatzaileak txosten bat aurkeztu beharko du eta, bertan, gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

a) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak.

b) Sustatzaileen hartze, profil eta aukeraketaren deskripzioa.

c) Enpresa-kudeaketaren gaineko prestakuntzan aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

d) Negozio-plana egiteko aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

2. Aurkeztutako jarduera-planak erakunde eskatzailearen helburu, ildo eta jarduerekiko duen koherentzia. Gehienez, 5 puntu.

3. Erakunde eskatzailearen aholkuak jasotako eta 2013ko azaroaren 1etik 2014ko irailaren 30ren artean sortutako enpresak. Gehienez, 20 puntu.

Los gastos subvencionables podrán ser de dos tipos:

— Gastos externos de formación.

— Gastos internos del personal de la entidad beneficiaria que ha participado en las acciones subvencionadas. Se incluirán exclusivamente sueldos y cargas sociales.

Los gastos internos en que incurra la entidad beneficiaria se justificarán con los documentos acreditativos de pago de sueldos y cargas sociales exclusivamente.

Se prohíbe la subcontratación de las funciones propias de la entidad beneficiaria señaladas en el artículo 2b, sin embargo, se permite la subcontratación de las funciones señaladas en el artículo 2a.

Se entenderá como gasto neto subvencionable aquel que resulte de la diferencia entre los gastos subvencionables que se deriven de la realización del proyecto y los ingresos a obtener a través de otros patrocinios públicos o cualquier otra fuente de ingresos, incluidos los ingresos propios.

El análisis y evaluación de las acciones subvencionadas se podrá realizar en cualquier momento desde el inicio de la acción y con posterioridad a su finalización, debiendo colaborar la entidad beneficiaria con el Departamento de Promoción Económica o con la entidad que éste último designe, aportándole los datos y documentación que se le solicite, así como permitiendo recabar dichos datos directamente de los Centros de Formación y de los participantes en la acción.

En la correspondiente convocatoria se determinará la forma y plazo de presentación de las solicitudes.

**Artículo 6.—*Procedimiento de concesión y criterios de valoración***

La selección de las solicitudes se realizará conforme con el régimen de concurrencia competitiva. A estos efectos tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo a los criterios de valoración que se señalan en este artículo, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de estos criterios.

No obstante se aplicará el prorrateo, entre las personas beneficiarias de la subvención, del crédito disponible,

El procedimiento de concesión se iniciará de oficio mediante la correspondiente convocatoria que tendrá el contenido establecido en el artículo 21.2 de la NFS, sin perjuicio de la previa aprobación del gasto a que se refiere el artículo 31.1 de la Norma.

Para la valoración de las solicitudes presentadas y determinación de la cuantía de la subvención se tendrán en cuenta los siguientes criterios a valorar:

1. El grado de definición, calidad, contenido, presentación y eficiencia de la solicitud. Puntuación máxima 5 puntos.

Para la valoración de este criterio la entidad solicitante presentará un informe que deberá contener al menos los siguientes puntos:

a) Razones por las que se justifica la idoneidad de la acción propuesta.

b) Descripción de la captación, perfil y selección de las personas promotoras.

c) Metodología aplicada en la formación en gestión empresarial, por cada uno de los contenidos, y duración de los mismos.

d) Metodología aplicada para la realización del plan de negocio, por cada uno de los contenidos, y duración de los mismos.

2. La coherencia del plan de actuación presentado con los objetivos, líneas y acciones de la entidad solicitante. Puntuación máxima 5 puntos.

3. Las empresas asesoradas por la entidad solicitante y creadas en el periodo comprendido entre el 1 de noviembre de 2013 y el 30 de setiembre de 2014. Puntuación máxima 20 puntos.

cve: BAO-BOB-2014a243

Irizpide honen araberako puntuazioa kalkulatzeko aipatu aldian alta eman duten enpresen kopurua hartuko da oinarritzat, eta 0,5 puntu emango da sortutako enpresa bakoitzeko.

4. Erakunde eskatzaileak aholkatutako eta 2013ko azaroaren 1etik 2014ko irailaren 30ren artean sortutako enpresetako pertsona sustatzaileak enpresa eratu den egunean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen kolektibokoak izatea. Balorazio-irizpide hori kalkulatzeko, aurretik aipatutako betekizunak betetzen dituen sustatzaile bakoitzeko, 0,5 puntu emango dira. Nolanahi ere, erakunde onuradun bakoitzeko, puntuazioa ezin da izan 20 puntu baino handiagoa.

Pertsona sustatzaileek, kolektibo batean baino gehiago sartu ahal badira ere, kolektibo horietako batean sartzeagatik baino ezin izango dira baloratu.

5. Bizkaiko eskualdeetan edozein era juridikoren bidez «Centro de Empleo y Desarrollo Local Behargintza»/»Behargintza, Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa» osatzen duten erakunde eskatzaileek, euren jarduketa-eremuak 25.000 biztanletik beherako udalerriak hartzen baditu, 20 puntuko puntuazioa lortuko dute.

Berdinketa gertatzen bada, eskatzaileen arteko ordena lehentasun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

1) Artikulu honen 3. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

2) Artikulu honen 4. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

3) Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko sarrera-erregistroan eskabideak izan duen hurrenkera.

**7. artikulua.—*Bazterkeria-arriskuan dagoen kolektiboaren ezaugarriak***

Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira bazterkeria-arriskuan dauden pertsonatzat:

a) Gutxienez hiru hilabete lehenagotik lanik gabe daudela egiaztatzen duten 45 urtetik gorako pertsonak.

b) Gutxienez 5 hilabete lehenagotik lanik gabe daudela egiaztatzen duten 30 urtetik beherako gazteak.

c) Gutxienez %33ko minusbaliotasun fisiko, psikiko edo sentsoriala aitortuta duten pertsonak.

d) Buruko gaixotasuna duten pertsonak (mediku-txostenaren bidez justifikatu behar da).

e) Lanik gabe luzaroan dauden pertsonak, hain zuzen, 12 hilabete baino gehiagoz modu iraunkorrean lanik gabe daudela egiaztatzen dutenak, eta langabezian inskribatuta hamabi hilabete baino gehiago daramatenak.

f) Guraso bakarreko familiako aita edo ama, langabezian gutxienez duela hiru hilabetez inskribatuta daudenak. Ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengoren bat edo batzuk kargupean duten pertsonak.

g) Honako hauetako batean ezarritako laguntzen pertsona onuradunak: Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea), eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18koko 4/2011 Dekretua.

h) Toxikomano izandako pertsonak (alkoholiko eta drogazale izandakoak); dekretu honetan ezarritako laguntzen ondoreetarako, halakotzat hartuko dira kasuan kasuko talde terapeutikoaren ustetan, desintoxikazio-fasea eta mendekotasuna kentzeko fasea gainditu ondoren eta eten gabeko tratamenduan 6 hilabete emandakoan lanaren bidez gizarteratzeko programa batean egon behar direla uste den pertsonak.

Goian jasotako inguruabar horiek kontuan hartzeko, ekonomia jardueretan alta ematen den egunari begiratu beharko zaio.

Para el cálculo de este criterio se tomará como base el número de empresas dadas de alta en dicho periodo, otorgando 0,5 puntos por empresa creada.

4. La pertenencia de las personas promotoras de las empresas asesoradas por la entidad solicitante, y creadas en el periodo comprendido entre 1 de noviembre de 2013 y el 30 de setiembre de 2014 al colectivo de personas en riesgo de exclusión, en la fecha de constitución de la empresa. Para el cálculo de este criterio de valoración, se otorgará por cada promotor que cumpla con los requisitos expuestos anteriormente 0,5 puntos. En cualquier caso la puntuación máxima por entidad beneficiaria no superará los 20 puntos.

Las personas promotoras, independientemente de que puedan encuadrarse en más de un colectivo, únicamente podrán ser valoradas por su inclusión en uno de ellos.

5. Las entidades solicitantes de subvención que bajo cualquier forma jurídica constituyan «Centro de Empleo y Desarrollo Local Behargintza»/»Behargintza, Enplegu eta tokiko garapenerako zentroa» en las comarcas de Bizkaia y su ámbito de actuación abarque municipios con una población inferior a 25.000 habitantes, obtendrán una puntuación de 20 puntos.

En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:

